

Gipuzkoako larrialdi zerbitzuak bertan mantendu daitezela eskatu du EH Bilduk

Elkarrekin Gipuzkoak eta PPK babestu dute eskaera eta Bizkaian zentralizatzeko asmoen aurrean, “ondo dagoena mantendu eta hobetzeko” eskatu dute.

Larrialdi zerbitzuak Bizkaian zentralizatzearen inguruan pasa den irailean eztabaidatu zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gaur ohiko Osoko Bilkuran berriro ekarri du gaia EH Bilduk. Izan ere, Jaurlaritzak 2019ko abendurako egin behar zuen proposamenaren txostena eta oraindik ez du ezer aurkeztu.

Baina bitartean, Juan Karlos Izagirre bozeramaileak adierazi duenez, dagoeneko zerbitzu batzuk zentralizatu direla ohartarazi dute bertako langileek: Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritzari Laguntzeko Zerbitzua (LAZLZ) Txurdinagan, esaterako. “Horrek dagoeneko arazoak sortu ditu: lokalizazioz nahastutako kasuek gora egin dute; eta honek inplikatzeko du anbulantziak beranduago iristea...”. Izagirrek gaineratu du zentralizatzeko ez duela onura bakar bat ere eta ez dagoela planteatuta, inolaz ere, osasun ikuspuntu batetik; “agian barne-saileko irizpideak jarraituz planteatzen da, baina ez osasun-ikuspegi batetik”.

EH Bilduk kezka ikusten du egoera, ondo dagoen zerbait aldatu nahi delako, langileekin hitz egin gabe. “Ez dira ari beraiekin hitz egiten inolako planik egiteko, langileek zerbitzu onena eskaini nahi dute, baina SADAEn zentralizazioarekin zerbitzuaren kalitatea okertzen hasi da dagoeneko. Ezinbestekoa jotzen dute lurralde bakoitzeko zentroak mantentzea. Zergatik? Gertutasuna eta ezagutza geografikoak zerbitzu hobe bat bermatzen duelako, ezbeharra gertatu den lekura iristeko denborak gutxituz”. Izagirrek gaineratu du “arazo informatiko larriren bat gertatuz gero, zentral bakarra egonez gero, zerbitzurik gabe gelditzeko arriskua izugarria” dela, gaur egun, horrelakoren bat gertatu denean, beste bi zentroek egiten dute hirugarrenaren lana, azaldu du.

Izagirrek gaineratu du arratsaldeko 20:00etan egunero txaloak jotzea oso ondo dagoela, “baina langile horiei kasu egin eta lurralde bakoitzean, eta gure kasuan Gipuzkoan, larrialdi zerbitzu egoki eta kalitateazkoa eskaintzea, askoz hobeto”.

Espainiar gobernuaren injerentziak

Bestalde, bilkurako beste puntu batean, EH Bilduk salatu du Espainiako gobernuak Gipuzkoak, gure Udalek eta Hego Euskal Herriak dituzten eskumenak ezabatu nahi izan dituela. “Espainiako Gobernuak gure eskumenetan inposatutako injerentziak izan dira. Estalitako 155 artikulua aplikazioa izan da. Ezin dugu hemen erabaki, bertako ezagutza eta informazioaren arabera. Madrilek erabakitzen du. Berzentralizazio operazioa izan da”, esan du Izagirrek.



EH Bildu pide que se mantengan los servicios de emergencia en Gipuzkoa

La petición ha sido apoyada por Elkarrekin Gipuzkoa y PP, que han reclamado que “se mantenga y mejore lo que está bien” frente a las intenciones de centralización en Bizkaia.

La centralización de los servicios de emergencia en Bizkaia se debatió el pasado mes de septiembre en las Juntas Generales de Gipuzkoa. EH Bildu ha vuelto a traer el tema al Pleno ordinario de hoy, porque el Gobierno Vasco tenía previsto elaborar un informe sobre la propuesta para diciembre de 2019 y todavía no ha presentado nada.

Pero mientras tanto, según ha explicado el portavoz Juan Karlos Izagirre, los trabajadores de emergencias han advertido de que ya se han centralizado algunos servicios, como el Servicio de Apoyo a la Dirección de Atención de Emergencias (SADAE) en Txurdinaga. “Esto ya ha generado problemas: los casos de confusión por localización han aumentado; y esto implica que las ambulancias lleguen más tarde...”. Izagirre ha añadido que la centralización no tiene ningún beneficio y que no está planteada, en ningún caso, desde un punto de vista sanitario; “quizás se plantea siguiendo criterios de departamento de interior, pero no desde un punto de vista sanitario”.

EH Bildu ve con preocupación la situación porque se quiere cambiar algo que está bien, sin hablar con los trabajadores y las trabajadoras. “No están hablando con ellos para hacer ningún plan, los trabajadores quieren ofrecer el mejor servicio, pero con la centralización de SADAE ya empieza a empeorar la calidad del servicio. ¿Por qué? Porque la cercanía y el conocimiento geográfico garantiza un mejor servicio, reduciendo los tiempos de llegada al lugar del siniestro”. Izagirre ha añadido que “si hay un problema informático grave, con una única central, el riesgo de que se quede sin servicio es enorme”, ya que, en la actualidad, los otros dos centros hacen el trabajo del tercero si algo sucede.

Izagirre ha añadido que los aplausos diarios a las 20:00 de la tarde están muy bien, “pero atender a estos trabajadores y trabajadoras y ofrecer un servicio de emergencias adecuado y de calidad en cada territorio, y en nuestro caso en Gipuzkoa, mucho mejor”.

Injerencias del gobierno español

Por otro lado, EH Bildu ha denunciado en otro punto que, durante la pandemia, el Gobierno español ha querido suprimir las competencias que tienen Gipuzkoa, nuestros Ayuntamientos y Hego Euskal Herria. “Han sido injerencias impuestas por el Gobierno español en nuestras competencias. Ha sido la aplicación del 155 encubierto. No podemos decidir aquí en función de nuestros conocimientos e información. Madrid decide. Se trata de una operación de recentralización”, ha dicho Izagirre.

